

BALIO PROPOSAMENA

Nork ez du inoiz arazorik izan apunteak bilatzeko orduan? Normalki deserosoa izaten da hainbat orrialdeetan ibiltzea bilatzen gai desberdinetako apunteak, baina JalPuntes web orriaren bidez arazoa konpondu egin ahal izango da.

Gure web-orrian eskainiko dugun BERRITASUN handiena batxilergo osoko gaien apunteak egongo direla esteka desberdinetan banatuta. Baita ere, bideoak egongo dira, bideo horietan pertsona desberdinek azalduko dute gaia edo nola egiten diren ariketak. Horrela, apunteetan irakurri dituzun gaiak hobeto barneratzeko aukera eskaintzen dute bideoek eta gainera, bisualki ikus daiteke prozedura. Apunteak bi modutan eskuratzeko era izango duzu. Alde batetik power point baten bidez, eta bestetik, PDF formatoan.

Horrez gain, gure web orria erabiltzeko erraza izango da, erabiltzeko edonork modukoa. Web orria topatzeko oso erraza izango da, bakarrik JALPuntes.com bilatu behar duzu eta automatikoki orria aterako da.

Orria ireki bezain laster sarreran nor garen azalduta egongo da eta web orrialdearen goialdean 2 esteka egongo dira. Batean apunteak egongo dira eta barruan lehenengo eta bigarren maila egongo dira bereizita. Bestean, bideoak eta apunteen modura egongo dira antolatuta. Hirugarren esteka bat egongo da beste bien ondoan eta bertan ordainketa funtzionamendua azalduko da.

